

### III. Dimako Gabonetako Pelota Txapelketako finalak 5ean

10. orrialdea

### Txikon Everesteko tontorraren bila

Igaz lez, Everesteko tontorra neguan eta oxigeno barik egiteko asmoagaz joan da Alex Txikon barriro Himalaiara, abenduaren 24an hasitako espedizioa zezeilaren amaieran amaitutea espero dau lemoztarrak.

Kolaboratzaile talde txikia joan da aurten beragaz, besteak beste, Alí Sadpara, 2016an Nanga Parbat (8.125 m.) mendia neguan eta oxigeno artifizial barik Txikonegaz igon eban mendizale pakistandarra. 11. orrialdea



### Iñaki Perurenaren berbaldia eta erakustaldia Areatzan

12. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 287

2018ko urtailaren 3a  
hamabostekaria  
www.begitu.org



## Zu bai Zu 2 martxan da

**Z**u bai Zu-ren bigarren edizioan parte hartu gura dauanak hilaren 31ra arte dauka izena emoteko aukerea. Lehenengo edizioan baino sari potologoak ipini ditue; 2.500 euro bananduko dira guztira.

Aurten, ez da derrigorrezkoa Arratiakoa izatea, baina Arratiako onenaren saria irabazteko erdiak gitxienez bertakoak izan beharko dabe. Aurrekoan lez Ismael Pereira ibiliko da aurkezle beharrak egiten. 13. orrialdea

## Neguko solstizioa



**N**eguko solstizioa aspalditik gurtzen da, Brontze Aroaren hasikeratik, eta Europan topau daiekguzan monumentu batzuk horren isla dira, esaterako Stonehengeko hari txikiak; izan be, neguko solstizioa noz izaten zan jakitea oso kontu garrantzitsua zan. Geurean be badaukaguz neguko solstizioari lotutako ohiturak: Gabon-gauean erretako basotik ekarten zan enborrari, barbarako, "gabon subil" edo "gabon mukur" esaten jakon Arratian; Gabonak pasauta, erre barik geldituten zan egur zatia kamarara eroaten zan eta hantxe ixten zan etxe guztia bedeinkatu eian, Angel Larreak idatzitako erreportajea jaso dan moduan. 8. eta 9. orrialdeak

### ARTEA

#### Angelines bidelagun

BEGITU asmo bat baino ez zanean, "aldizkaria atera behar dogu, ze ostean zenbat gauza galduko diran. Esate baterako, Angelinesek eukiko dau zer kontau ugari" sarritan entzun genduan. Izan be, erre-frente bat zan. Beste sasoi batean bizi izan balitz, koplazaharretako protagonista izan eikean. Gerora, alkarrizketea be egin geuntsan BEGITUN. Eta sari lagundu berak guri. Plazandrea zan, berba bakarragaz dana emoten ebana. Beti prest. Eta pasadizo ugari kontatu euskuzan, oin guri jagoku bere irudia ez galtzea, eta pasadizoak eta gomutak batutea. Familia osoa batuten joan jaku Angelines. Berean danak familia berekoak ginalako. Familia horretakoa da be Fredi Paia bertsolaria, eta Gara egunkarian abenduaren 27an idatzitako zutabea itxi deusku oroigarri. 7. orrialdea

### ARRATIA

#### Erregeen Kabalgatak eta hainbat ekintza oindino Gabonetan

Gabonak dirala eta udal, alkarte eta abarrek antolatu dabezan programetako ekintzak urteko lehenengo egunak be hartzean ditue. Erregeen Kabalgatak, antzerkiak, kontzertuak, Gabonetako Umeen Parkeak... badago aukerarik, batez be umeak, oindino disfrutetako. Azpimarratutakoak dira Areatzako Bandak Igorren emongo dauan kontzertua eta Areatza, Bedia, Igorre eta Lemoako Erregeen Kabalgatak. 5. orrialdea

### IGORRE

#### Bizi Batzordea herriko taldeakaz edadekoen bizimodua eztabaidatzen

Bizi Batzordekoak, Maraka taldeak dinamizatu, "Word kafe" dinamikea egin eben Kultur Etxean abenduan. Helburua edadekoai bizitzan eragiten deusien gaiez eztabaidatzea izan zan, eta ateratako ondorioak Igorreko Udalarri jakinarazotea. Igorren, 2016an, Herri Lagunkoi izeneko proiektuaren ondorioz Bizi Batzordea sortu zan. Bertan dagozanen asmoetako bat da hartu-emon intergenerazionalak lortzea, eta era berean eurari eustea. 5. orrialdea



  
**Pedro Álvarez Blanco**  
NOTARIOA

Tel.: 94 673 92 26  
Añibarro parkea 3, Behea Faxa: 94 673 94 06  
48143 Areatza areatza-notaria@gmail.com



## ZEURE BERBEA

### Familia osoarentzat, baina batez be, zuretzat, Miren

Azken egunotan, asko eta leku askotan izan dira Angelineseri omenaldi-txo bat egin gura izan deutsienak. "Etxeko bihurtzen zintuen Angelinesek atetik sartu ahala. Familiakoen lagun, gazteen laguntzaile, bertsozale, pandero-joleen ondorengo eta etxeko suaren inguruko armoniaren ingeniaria" zala esan eban Fredik; "Siempre dispuesta a agrandar, Angelines era mucho más que una tabernera. Era como la amantxu de todos los que en su casa nos refugiáramos. A deshoras, sin previsión, le preguntabas si podía preparar algo para comer y enseguida se ponía manos a la obra" Koldo Mediavillak; "Fue siempre amable y generosa en el trato y en el plato. El pasado lunes, día de Navidad, falleció. Su enorme corazón no pudo resistir más" Iñaki Ugaldek.

Eta ez da gitxiagorako. Angelines instituzino bat izan dalako. Baina Angelines hori dana baino askoz gehiago izan da: gure lagunik onenaren ama izan da, eta neurri handi baten, geurea be bai. Holan sentidu dogulako beti, eta berak be "honik be nire alabak dira" esaten eutsolako jenteari; eta guk, harroharro, irribarre konplizea bueltetan geuntson.

Suberte handia euki dogu bere

ondoan hazi izan garalako, eta bere barruko onenak jasoteko aukerea euki dogulako. Eta transmitidu deuskuzan altxor guztien artean, zein inportanteak ziran beretzat alkartasuna eta adiskidetasuna! Hainbat bider (egunero esatea be ez zan gehiegi esatea izango) esaten euskun: "izin zatezie lagunek beti, eta egon alkarregaz". Eta holan, txiki-txikitatik "las 3 Marias" esaten hasi jakunetik, gure artean zirkulu berezi bat sortu zan/eban, eta bera, gure "Angi", beti egon da eta betiko egongo da zirkulu horren erdi-erdian, bihotzean. Hain justu be, horixe zan eta Angelines: dana bihotza.

Baina subertedunak gara be, hemen daukagulako geugaz bere prolongazinoa dana, bere izana heredentzian jaso dauana, ze Angelinesen bihotza handia bazan, bere alabarena ez da txikiagoa.

Asko maite dogu zure ama, Miren; eta asko maite zaitugu zu, baina oin, Angelines, joan egin da, eta seguru, berak etxoten eban moduan, Mario, bere bizitzako maitasuna, han egongo zan bere zain, eta Angelinesek eskua emon eta beragaz joango zan. Eta guk, joaten itxi behar deutsagu. Gainera, bere zatitxo bat baino ez da joan, hazurharagizkoa. Beste zati handi bat, hemen geratuko da betiko: zuga, guga, inguruko guztiengan, eta gure zirkulotxo honen bihotzean. Alkarregaz gagozan bitartean, bizibizirik sentitan jarraituko dogulako bere presentzia.

MIREN URUTXURTU ETA IRATXE ZABALA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrikut eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Kiribildu



Gauza bat bere ardatzaren inguruan batu edo bildu egiten danean kiribildu edo kirimildu egin dala esaten dogu. (kiribildu/kirimildu, agoskatuta). Batuan, kizkurtu da. Esate baterako, uleetako kirrua kiribildu egiten da. Arbola baten adar edo errama kiribilduak, edo egurra ebagitean ateraten dan txirlorearen forma biribila. Sugeak be, arriskuaren aurrean, kiribildu egiten dira.

## ERETXIA

### Artaziak Hezkuntza Publikoan

**K**ukurruuuuuu! Goizeko 07:00rak, erlojuari tonua gaur bertan aldatu behar deusat, holan itzartutea ez da sanoa, edozein egunetan bihotzekoak emongo deust. Albokoak txintik be ez dau egin, kafea eta ogia mahai gainean dagozanean etorriko da. 06:00retako txandan sartuten diranakaz akordau naz gaur be. Aupa zuek! Duxau, jantzi, kotxea hartu eta banoa institutura. Aurten zorionez etxetik hur nago, eskerrak! Ederra bada, baina lekutan dago Karrantza! Lehenengo orduan zaintza; karrajutik bueltatxo eta klasean azaldu beharrekoa errepasauko dot. "Ondiño Itziarren ordezkorik ez dabe bigildu" Peruk atetik sartu nazanean. Gaixorik dagoan bigarren astea eta ikasleak irakasle barik. Ia hainbat arinen bialduten daben baten bat, martxa honetan ebaluazinoa helduko da eta! Plastiketan ez naz abilena, baina neugaz egin beharko dabe gaurkoa be. Collage-a amaituten dabiz, artaziak banatu deusiedaz.

Mohamed leihotik begira dabil gaur be. Jatorra da bere irakaslea eta baita gelako kideak be, nahiz eta ez deusen tautik be aituten... Ondo esaten deusie gelan, patiora lagundu, fitxak azaldu... baina aspertu egiten da. Irakasleak euskera ikasteko liburutxo emon deusita eta ahal dauanetan bere ondoan jesarten da laguntzea emoteko. Bere ondoko lagunak be beste irakasle baten laguntzea eukiten dau batzuetan, Andere izena daukan neska gazte batena. Berari be lagunduten deusita Anderek ahal dauanetan. Baina sarritan Andere ez da gelan egoten eta orduan bera eta laguna galduta ibiltzen dira. Gaur be bakarrik dagoz eta andereñoak beragana joateko tartea euki bitartean, artaziakaz olgetan dabil Mohamed...

Bai, badakit buruko min gailanta daukazuna, sudurra gorri-



### IXONE AROMA BARRENA ETA AINHOA ETXAZARRA ARKOTXA

Irakasleak

gura zeunke, deskantsau, lo egin. Atsisss! Edurrak dana zurituten dauanean igarten dan lasaitasun eta bake sensazio hori gaur sentidu ahal bazendu... Erlojuaren orratzak geratutea gura zeunke, baina laztana, eskolara joan beharra dozu. Atzotik zagoz gogo txarragaz, badakit, baina gaur azterketea daukazu eta ezin dozu huts egin, danak egongo dira zure zain. Atsisss! Etxean halan erakutsi eutsuelako edo, sekula ez zara izan huskeria bategatik beharrera joan barik geratutekoa. Aititak esandakoak beti izan dozuz gogoko eta gogoan: "eitten bozue, eukozue". Baina gaur, beharra baino ezetu ez eben eskuak ahaztu ez dozuzan arren, ohean geratu gura zeunke. Atsissss! Egoerea imajinau dozu; zu begiak zabaldu ezinda eta 60 begi zabal zabalik zuri begira. Hirurogei! Artaziak hartu eta gela erdibituterik bazendu sikan!

Gelara sartuteko txirrina entzun eta laster sartu da DBH3 B-ra Miren. Oindino ez daukie arbela digitalik gela honetan... baina, gaurkoan pozik dator irakaslea. Liburuak itxi eta informatika gelara joateko esan deusie ikasleai. Pozik zer dagoz ba! Irribarretxo agertu jako Mireneri ahoan... Ez da erreza libre topetea ikastetxe osoan dagozan informatika gela bietako bat eta oingonan lortu dau! Baina laster hasi da irribarretxo moteltzen... 25 ikasle daukaz eta 18 ordenagailu baino ez dagoz gelan. Lasai... Batzuk binaka jarri eta kitu! Aurrera ba... *baina, Miren! ordenagailu honek ixitu be ez dira egiten! lasai... zuek be binaka jarri... baina, beste honek ez dauka interneterako konekzionirik! Hara... ba... zuek hirunaka egingo dozue behar. Atzeko ordenagailu honek sagua falta dau! Ba zeuk be ondoko lagun biekaz hirukotea egin beharko dozu... Holan egoteko hoba gelan fitxak egiten andereño!* Aurten hiru ordenagailu barri baino ez dabenez bidaliko, datorren urtean artaziakaz ebagi beharko dau Mirenek bere programazinoan agertuten dan kompetentzia digitaleko atala.

tuta, mokoia dariola zagoz, zapia eskuan. Atsisss! Ohean geratu

## LUMATUTEN

JUAN MANUEL  
ETXEBARRIA AYESTA

## Kalendarioa

**U**rte barriak kalendario barria. Gaur egun normal egiten jaku kalendario bat eskuratzea baina horrek historia luzea dauka. Kalendarioa, egutegia izenez euskeratu dogu eta halantxe darabilgu. Baina kalendario berbea, latineko "*calendae* eta bere eratorri "*calendarium*"-etik dator. Erromatarren kalendario zaharrea, "*calendae* (gazt. *calendas*) hilabete bakotxaren lehenengo egunak ziran. Grekoek ez eukien izen hori eta horregaitik, egingo ez dan gauzen bat adierazoteko erabilten da esaera hau: "*ad calendas graecas*" hau da, ez joan kalenda grekoen bila, ez daukiez-eta". Historiara joaz, erromatarren urte zaharra, hamar hilabetekoa zan, hau da, martitik abendura, lehenengoa *martius* eta *december* azkenengoa. Baina urtearen zikloa desorekatu egiten jakien eta Kristo aurreko 46. urtean, Julio Cesar erromatar agintariak

kalendario Julianoa osatu eban Alejandriako Sosigenes astronomoaren laguntzaz, *februarius* eta *januarius* hilabeteak martiaren aurretik jarriaz eta lau urterik lau urtera egun bisiesto bat gehituaz. Gainera, zazpigarren hilabetea-ri, Julio, bere izena ipini eutsan. Geroagora, 1582an, Gregorio XIII. Aita Santuak kalendario gregorianoa egokitu eban, gaur daukaguna. Kalendario gregorianoa egokitzeko be hamar eguneko erreajustea egin zan, 1582ko urriaren 4an. Hau da, hurrengo eguna, golpean, urriaren 15a izan zan. Aitu, kasualitatea dirudi baina aldaketa egun horretan hil zan Santa Teresa de Jesús, urriaren 4an eta hurrengo egunean enterratu, hau da, 15ean. Guk euskaldunok, Europa eta munduko gehientsuenak legez, kalendario gregorianoa darabilgu baina egokitu egin dogu, hilabete batzuk behintzat geure kulturara ekarriaz. Aiko, hartu daigun adibide lez, gaztelerazko "enero < lat. *januarius*, (Jano, Erromako jainko mitologikoa) gurean: "urte-berrihil > urtarril, edo urteil, ilbeltz, izotzil... berbakaz eratu dogu. Esakera moduan be badarabilgu: "Urtarril hotza, neguaren bihotza". Urte barri on!

## ZERTZEAN



## JON ARTETXE



## BEGI TXINDORRA

**U**nean larri ño!  
Aitorrek aukerarik  
baeukan ondino?  
Eskuak gurutzatuz  
bi keinu nimiño,  
bataren kezka dira  
bestean irriño...  
ta txapelak "Maialen,  
zurea naz" dino!

**Arkaitz Estiballes**



Argazkia: Gari Garaialde.

**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisc.com

**agoa**  
hagin klinika  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarregia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bikala  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zerbaita 100  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Titnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

## ARRATIA

# Errege Magoak izango dira Arratiako hainbat herritan

### Erredakzioa

Urte barria hasi da eta Gabonetarako antolatutako programetako ekintzak oindino ez dira amaitu. Urte hasikera honetako lehenengo egunetan badago zeregaz gozatu Areatza, Artea, Bedia, Igorre eta Lemoan berbarako. Erregetako kabalgatak, kontzertuak, urtekerea, antzezlanak, berbaldia... Badago nondik ibili.

## Areatza

### Urtailak 4, eguena

19:00etan, AKKBk antolatuta, Iñaki Perurenaren kontakizun eta erakustaldia "Harria. Maitasun istorioa". Udaletxeko Areto Nagusian.

### Urtailak 5, barikua

17:30ean, Erregeen Kabalgatea. Karpotik hasita.

## Artea

### Urtailak 4, eguena

10:00etan, Gabonetako Umeen Parkera urtekerea.

## Bedia

### Urtailaren 2tik 5era,

10:30etik 13:30era, ludotekea eta liburutegia zabalik.

### Urtailak 5, barikua

18:30ean, Erregeen Kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.

## Igorre

### Urtailak 4, eguena

11:30-13:30 eta 16:30-19:30, Gabonetako Umeen Parkea eta Motxogangen tailerrak aterpean.

### Urtailak 5, barikua

18:30ean, Erregetako Kabalgatea Mandoia kaletik.



kontzertua Lasarte Aretoan.




### Urtailak 7, domekea

17:00etan eta 19:00etan (saio bi egingo dira), Glu Glu konpainiaren umeentzako antzerkia *Alizia lurralde miresgarrian*. Lasarte Aretoan.

## Lemoa

### Urtailak 3, eguaztena

19:30ean, Pintxo Lehiaketea eta Hiri Galduak-en kontzertu akustikoa Karabie Gaztetxean.



### Urtailak 5, barikua

Iluntzean "Zerbait is coming...". Astean zehar fanzineen erakusketa.

### Urtailak 6, zapatua

17:30ean, Errege Magoak.

### Urtailak 6, zapatua

19:30ean, Areatzako Bandaren

## IGORRE

# Bizi Batzordean "Word kafea" Igorren

### Erredakzioa

Abenduaren 19an, seiretan, Igorreko Kultur Etxean, Bizi Batzordekoak eta Maraka taldeak dinamizata, "Word kafea" dinamika egin eben. Parte hartzaile guztiak hamabost minutu euki eben mahai bakoitzean gai askoren gainean eztabaidatzeko.

Egun horretan zortzi gai honetara eztabaidatu ziran: etxebizitza, garraioa, parte hartzea eta enplegua, aire zabaleko espazioak eta eraikinak, errespetua eta inklusioa, informazioa eta komunikazioa, parte hartzea eta gizarte beharrak, gizarte eta osasun zerbitzua. Gai bakoitzean, proposamen zehatzak agertu ziran, adinekoen bizi baldintzak hobetzearren.

Dinamikean parte hartzeako, herriko talde guztiak konbidatuak egozan eta berrogei pertsona inguru batu ziran. Institutuko irakasleak, eskolakoak, Caritas eta beste talde batzuetako jentea be egon zan.

Bizi Batzordekoak zera adierazo eben: "dinamikean, proposatutako arazoez beste taldeetako jentek zer uste eban jakin gura



Bizi Batzordeko batzarrera hurreratutakoak.

genduan, diagnostiko sakonagoak eta intergenerazionalak egiteko". Bide batez, euren asmoa lehenetsunak zehaztu eta udalari erabagiak plazaratzea zala gaineratu eben.

Bizi Batzordekoak gogoratu gura izan eben zelan berrogeita hamar pertsona batu ziran diagnostikoa egiteko. "Sano esperientzia polita izan da. Oso pozik gelditu gara". Ondorioz, hamabost pertsona horreek segitzea ebatzi eben. "Beste herri batzuetan taldeak desegin dira, baina guk

segitzea erabagi genduan. Orain parte hartzean dogu udaleko batzar batzuetan".

Igorrek 2016an Herri Lagunkoi izeneko proiektuagaz egin eban bat. Denpora horretan proposamen batzuk martxan ipini dira eta beste batzuk egiteko dagoz. Halanda be, Bizi Batzordekoak uste dabe inportanteena segidutea eta hartu-emon intergenerazionalak lortzea dala. "Korrikan eta zuzatzen egunean baino zeozer gehiagotan parte hartu gura dogu".

## AREATZA

# Gabonetan sartu da indarrean peatonalizazioa

Peatonalizazio proiektuagaz Areatzako Udalak Alde

Zaharreak kotxeak dagoan arazoa konpondu gura dau.



Areatzako plazea.

### Erredakzioa

Batez be, arrastietan eta ateburuetan sortzean izan dira arazoak. Proposatzen dan mapa barri honek aldaketak ekarriko ditu herri barruko zirkulazioan, aparkaleku barriak seinalizatu dira, komertzioetara joateko eta zamanak egiteko esparru barriak dagoz eta kale batzuen norabidea be aldatu egin da.

Abenduaren 23ko eguerditik aurrera, peatonalizazio barri hau indarrean sartuta dago. Horregaitik, plazako zirkulazioa itxi egin da, eguerdiko 14:00etatik hurrengo eguneko 08:00rak arte. Holan proposatutako aldaketak

martxan ipini dira.

Halanda be, sistema honek ez dau eraginik izango ez anbulantzien zerbitzuan ez suhiltzaileen zerbitzuan, Alde Zaharrea sartzeko piletako giltza unibersala erabiliko dalako.

Udalak kontratatutako bi pertsona kalean egongo dira bi edo hiru hilabetez informazio guztia emoten eta aparkaleku eta zamanetarako gune barriak non dagozan erakusten. Halanda be herritarrek edozein zalantza argitu gura izan ezker, udal bulegoan, langileengandik eta areatza.parteartzea@gmail.com helbide elektronikoa be laguntza topaiko dabe.

## UBIDE

# Aldeketa gitxi udalaren 2018rako aurrekontuetan

### Erredakzioa

Kontuok 286.000 euroko gastuak aurreikusten dabez. "Gure kasuan ez dago margen handirik planteetako zer egin daiteken" dino Joxan Pagola Ubideko alkateak.

Igaz lez Hiri Antolamenturako Plan Orokorrerako izango da 2018ko diru partida nagusia. Ingurumen txostena izango da aurtengo inbersinorik handiena eroango dauana. "Subentzino bat eskatuko da Udalkutxan plana amaitzeko. Hori eta funtzionamenturako gastuak kenduta, ez

da diru askorik geldituen inbersinoetarako. Kolunpio batzuk ipiniko dira, eta beste gauza batzuen artean, artxibategia digitalizatu gura dogu" dino alkateak.



## IGORRE

## Ormazabal enpreseak badauka zer ospatu

## Erredakzioa

Hain justu 50. urteurrena ospatu dauan urtean, Ormazabal y Cia, SLU enpreseak Urrezko A Kudeaketa Aurreratuari Euskal Saria irabazi dau.

## Kudeaketa Aurreratuari Euskal Saria

2017an hamabi alkartek Eusko Jaurilaritzako Kudeaketa Aurreratuari sariak jaso ebezan, Donostiako Kursaal Elkargunean abenduaren 12an.

Igorreko Ormazabal enpreseak bere lana ikusi dau sarituta "egindako lana publikoki onartzen da eta kudeaketa egindako lana agerian gelditzen da".

Kudeaketa-sistemearen etenbako hobekuntza eta aurrerapenagaz

konpromisoa erakusten daben Euskadiko enpresa, hezkuntza-zentro, osasun-zentro eta bestelako erakundeak, publikoak zein pribatuak, EUSKALITen bitartez lortzean dabe aurrerakuntza sari horreek.

EUSKALITeko Ebaluazio Kluba, modu altruistan alkarlanean dabilzan 2.000 zuzendarik eta teknikaririk baino gehiagok osatzen dabe.

## Urteurrena ospatzeko ekintzak

Gainera, igazko bagilaren 17an,



Igorren lan egiten daben behar-ginentzat eta euren familientzat ekitaldia egin zan. Bertan egun osoan hainbat ekintza egin ziran; besteak beste, instalazioak eta fabrikazio prozesua ikusteko bisita gidatua, umeentzako puzzle-garriak eta magoak. Nagusientzat, barriz, hainbat aukera gastronomiko izan ziran. Javier Ormazabal, Velatia taldeko presidentea, emon eutsan hasikerea ekitaldiari.

Bestalde, igaz Ormazabal enpresan milioi batgarren produktua fabrikatu zan. Hori ospatzeko behargin guztiak sinatu eben ekipo hori. Enpresako showroomean egongo da momentu horren oroigarri gisa.

## UBIDE

## Eraikin biren ustiapenaren lizitazioa

## Erredakzioa

Ubiden udalarenak diran eraikin bi alokagai dagoz. Eraikinak kontratuen bidez alokatuko dira. Batetik, San Juan kaleko 1. zenbakian dagoan Herriko Tabernaren ustiapena esleitzen da; eta bestetik, udalak Jon Deuna kaleko 4. zenbakiko lehenengo solairuan daukan pisua be etxebizitza moduan alokatu gura dau.

## Herriko Taberna

Herriko Taberna, taberna eta jate-txe jarduerak betetekoak izango dira derrigor. Bertan, beheko solairuko taberna eta jate-txe zerbitzuez gain, lehenengo solairuan, etxebizitza be badago eta etxebizitza be lizitazio barruan sartzean da. Kontratuaren epea 5 urtez luzatuko da eta izena emoteko azken eguna 2018ko urtailaren 4an amaituko da. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua hilean 400 eurokoa, gehi BEZa, izango da.

## Udalaren eraikina

Bestalde, esan bezala, udaletxean bertan dagoan etxea be alokagai dago. Etxebizitza honek erabilgari daukan espazioa 89 metro karratukoa da. Sano egoera onean dago eta 6 gela ditu. Kontratuaren epea 3 urtez luzatzeko asmoa dago. Eskaria egiteko azken eguna 2018ko urtailaren 4a izango da. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua, gitxienez, 350 euro hileko, gehi BEZa, izango da. Interesdunak informazio guztia jaso leikie Ubideko Udaleko bulegoetan. Bestela, [www.ubidekoudala.net](http://www.ubidekoudala.net) webgunean kontratatzaile profila atalean jaso leikie.

## ARRATIA

## Aldaketea BEGITUREN erredakzioan

## Erredakzioa



Boladatu baterako aldaketea izango da BEGITUREN erredakzioan. Izan be, BEGITUKO kazetaria dan Beatriz Azpirik istripu txikia euki dau, ezer larririk ez. Baina, hori dala eta, aste batzuetarako bajea hartu behar izan dau. Hemetik, ahalik eta arinen osatzea opa deutsegu gure lankideari. Bitartean, Ane Miren Rilok, Zea-nuriko auzokideak, beteko dau haren eginkizuna BEGITUREN erredakzioan. Derrepenteko aldaketea izanagaitik be, BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak aldizkaria Arratiako etxe eta txoko guztietara zabaltzeko asmoari eusten deusta.

## AREATZA

## Areatzako Parketxe zaharbarritua bisitetako aukerea

## Erredakzioa

Urtaila, zezeila eta martiko hila-beteetan, ate irekien jardunaldiak izango dira Areatzako plazan dagoan Gorbeia Interpretazio Zentroan. Era berean, Gorbeia Parketxe azken bi solairuetako

erakusketak barritu dira. Bisitaldian, besteak beste, jolastu eta musika entzuteko aukerea dago.

## Bigarren solairua

Bertan, Gorbeia basoetan dagoan zuzat espeziaz eta fauna ezetuteko aukerea dago. Nobedadeen artean, gure portaera eta basoen onuraz gehiago ikas daitkeen jolas interaktibo bat dago. Gorbeia mendiguneko historia ezetuteko eta trikuharrien ondoan topatutako tresnak ikusteko aukerea be izango da. Horrez gain, bideo labur baten laguntzaz gure paisajearen jatorriaren nondik norakoa ezetuteko modua dago. Saldropoko hezegunea eta bere historia be ja-

irai daitete bertatik bertara.

## Hirugarren solairua

Honetan barriz, panel batzuen bitartez forma geologikoak daukien garrantiaz jabetuko dira bisitariak. Lurraldeko lanbiderik zaharrena dan artzaintza zetan dan azaltzen da bertan. Atzen urteetan, beharakada nabarmena jasan badau be, Gorbeia Parke Naturalean garrantzia handiko lanbidea izan da beti. Bestalde, Gorbeia kurtzearen erreplika eta ondoan Gorbeia tontorrean jarritako lehen orientazio mahaia ikusi ahal da. Amaitzeko, panel batzuetan mendizalatasunerako Gorbeia mendiak daukan garrantzia ikus daitete.



	<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea	
	<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre	
	<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza	
	<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre	

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Pelig. Mendizola, s. 48530 LEMOIA, Bakaia  
Tel: 600 480 839 / Fax: 600 200 717

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebatzen dogu. Bisarra egin eta buzkunduen dogu.  
Tel.: 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behe IGORRE

**Kili-Kili**  
Amigo eta Purriflorak  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Mokola)  
Tel.: 94 673 43 81

**Zugaitik BEGITUen dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behe  
48140 Igorre

**INMOBILIARIA**  
Tfnoa: 94 631 80 04

## ARTEA

# 2018rako aurrekontua igon da

### Erredakzioa

Aurrekontua "orekatua da", eta 1.021.670,50 euroko diru sarrera eta gastuak aurreikusten ditu. Igaz baino %10 inguru gehiago.

Diru partida handienak urigintza proiektuek eroango dabez. Besteak beste, udalak Zeberiotik datozan autoen abiadura murriztu gura dau eta plazatik udaletxera doan hormea bota eta espaloia egingo dau. Horrezaz gain, plazako bihurgunea zabaltzeko asmoa dauka Arteako Udalak "holan trafiko arazoak konponduko doguz eta oinezkoai lehentasuna emongo deutsegu", dino Igor Etxaniz alkateak. Era berean, udalak parke moduko bat egin gura dau, medikua, frontoia eta eskolearen arteko alde horretan. Bertan be lehentasuna emon gura jako oinezkoari.

Aurtengorako kultura arloko diru

partidea bikoiztu da, "herritarrak urtean ekintza gehiago egitea eskatu dabe euskerea bultzatzeko, ez bakarrik Euskera Eguna ospatzea. Horregaitik, kultura partidea handitu da", dino alkateak.

Gazteentzako proposamenak be badagoz, "lokal bat eskatu eta dinamizatzailer bat be ipintea proposatu dabe" adierazo dau Etxanizek eta kontuan hartuko dabela dino.

Bestalde, igaz lez, gimnasioko makinak barrizten segiduko dabe. Horregaitik, Gimnasioko partideak 5.000 euro gehiago izango ditu. "Igaz pare bat erosi genduzan eta aurten hiru-lau lortu gura doguz, makina profesionalak behar doguz, gimnasioan gehiegizko erabilera daukie eta apurtu egiten dira". Azpimarratzekoa da udalak bi persona kontratatuko dituala aurten, kontratuak apiletik urri lehenengora bitartekoak izan-

go dira. Langileek herriko mantenimendu lanak egingo dabez.

Herri batzarretan proposatutako beste gauza batzuk egiteko be diru partidea ipini dau udalak, besteak beste, apurtuta dagozan baldosak konpontzeko, herriko mantenimendua indartzeko eta herriko hesiak pintetako.



Arteako Udala.

## ARRATIA

# Izaskun Bilbao europarlamentaria Arratiarrakaz berbetan zikloan Igorren

### Erredakzioa

EAJ-PNVk Arratiako herri guztietara eroan gura dauan berbaldi zikloa Igorrera bueltatuko da "Europako Parlamentuak Euskadiko gaurkotasun politiko eta sozialean daukan eragina herritarrai hurbilazoteko".

Izaskun Bilbao Barandica, Europako Parlamentuko EAJ-PNVko parlamentaria eta Europako Demokratia eta Liberalen Aliantzako presidenteordeak egingo dau berba *Arratiarrakaz berbetan* zikloaren barruan egingo dan hu-

renge saioan. Berau, urtailaren 12an egingo da Kultur Etxean, 19:30etatik aurrera.

*Arratiarrakaz berbetan* zikloa "zabala da, hau da, biztanle guztiai zuzenduta dago eta euskal gizartearen kezka nagusi diran gai desbardinai buruz berba egitea da helburua, *Arratiarrakaz berbetan* ekimena ez da mitin ziklo bat eta".

Igorreko berbaldian, europarlamentariak Europako Parlamentuan aztertzen eta eztabaidatzen diran gaiak "Euskadiko gaurkotasun politikoan daukien garrantzia eta eguneroko bizimoduan ze-



Izaskun Bilbao.

lango eragina daukien" azalduko deusie bertaratutakoai, besteak beste "Europa barruan estaturik ez daukien nazioen egoera, hizkuntza gitxituen errealitatea eta atzen bi legealdi honeetan Europako Parlamentuan aldeztu dituen ekimen esanguratsuen laburpena egingo dau" dino EAJ-PNVk.

## JO PUNTUA

# Angelines

**B**ada Bizkaian Gorbeia-  
ren gerizpeak jagoten  
duen haran berezi bat.  
Historiak alpatzen  
duen lehen aldietan  
Hartz haran izena zuen. Gerora,  
hartzek berekin eroan zuten izena.  
Eta orain, haranari zeharkatzen  
duen ibai nagusiaren izenez  
deitzen diogu.

XIX. eta XX. mendeetan handik  
ibili ziren abade eta fraileek bertan  
entzundakoaren berri idatzia  
utzi ziguten. Lamindaoko lami-  
nen erreka eta putzuak, erabaki  
garrantzitsuetarako kontseilu es-  
ke Supelegorrek kobazuloko An-  
drearengana joaten ziren errota-  
riak, urrezko orraziak, jentilen  
aurkako ermiten kanpaiak eta er-  
mita gehiago. Soinu bereziko ha-  
rana. Bertan babestu zen alboka  
Euskal Herriko gainerako lekueta-  
tik desagertu zen bitartean.

Haranaren izpirituaren jagoleak  
taberna zuen Arteagan, Gazte-  
lu-Elexabeitin. Menuan ageri de-  
netik hautatu beharrean menuko  
plater guztiak mahai gainera ate-  
ra eta guztia jatera animatzen  
zintuen lege zaharreko ugazabandrea.  
Etxeko bihurtzen zintuen  
Angelinesek atetik sartu ahala.  
Barran itxaron bitartean bandeja  
bete kroketa, lapiko bete arroz-  
ne-natilla-flan postrerako. Fami-  
liakoen lagun, gazteen laguntzai-  
le, bertsozale, pandero-joleen  
ondorengo eta etxeko suaren in-  
guruko armoniaren ingeniaria.  
Behin Arratiara joanez gero ezin  
bertatik alde egin Angelinesen ta-  
bernan ku-ku egin barik. Sarritan  
bertara joatea zen plan nagusia:  
lagun arteko bazkari, familia ospa-  
kizun... Garrantzi handia ema-  
ten zion Angelinesek gazteok as-  
ko jateari, eta guztion amama  
balitz legez kontrolatzen zuen ga-  
noraz jaten ote genuen ala ez.  
Bazkaltzera joan aurretik mendi  
buelta on bat egiteko ohitura era-  
gin zigun Angelinesek. Bestela,  
zalla zen bere aurreikuspenei  
eusteko besteko sakea edukitzea  
ordenagailu aurrean lan egiten  
dugun sasolotan. Eta guztiok jaso  
gura genuen Angelinesen aproba-  
tua kopak eskatzen hasi aurretik.  
Behin bertsoan esan nion legez,  
hamar Angelinesekin munduko  
gosearen arazoa konponduta  
egongo zen. Aurten Olentzerok  
berak oparia eskatu dio Arteaga  
ko herriari, guztion harridura era-  
ginez. Neguko gauak hotzak eta  
gogorrak dira lanerako, eta berak,  
zein bere dozenaka iratxoek,  
etxeko sutondoan armonia era-  
kitzen dakien ugazabandre fin  
bat behar ei dute.

Lamindaoko

laminen

erreka eta putzuak,

erabaki

garrantzitsuetarako

kontseilu eske

Supelegorrek

kobazuloko

Andrearengana

joaten ziren

errotariak, urrezko

orraziak, jentilen

aurkako ermiten

kanpaiak eta ermita

gehiago. Soinu

bereziko harana



Fredí Paia  
Bertsolaria

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

## NEGUKO SOLSTIZIOA

# Neguko solstizioa: egun barri, egun argi

Hasteko, solstizioa zera da: gure kasuan, ipar hemisferioko ardatzerdi baten inklinazio axialik handiena harturik, Lurra planetak Eguzkia izar handirantza orbitatzen dauanean gehien makurtuten dan unea. Neguko solstizioaren fenomeno astronomikoa abenduaren 20-23 egunen inguruan izaten da.



Neguko solstizioko gauean egindako suak.

## Angel Larrea Beobide

### Hartz Handia konstelazioa

Neguko lehen eguna, edo neguko solstizioaren lehen argia, tradizio erlijiosoan eta astronomian egun diferenteetan kokatuten da. Tradizioaren eta zientziaren arteko aldea egutegi aldaketa batetik dator: Eleizeak ezarri eban Jesukristoren jaiotzea 25ean, orduko garaian indarrean egoan "egutegi juliano" edo juliar-egutegiaren neguko solstizioaren lehen egunean (gaurko egutegiagaz alderatuta, egun batzuetako aldea dago). Neguko solstizioan hasita, ipar hemisferioko konstelazio

nabarmen baten zentrauko gara, Hartz Handia izeneko konstelazioan kasu. Honen zazpi izar distiratsuenak, ia urte guztian ikusteko moduan dagoz, urtearen atzen hilebeteetan izan ezik. Apurka-apurka baina, neguko solstizioa igarota, gero eta hobeto ikusiko doguz gure zurretan. Otsailaren edo zezeilaren hasikerako egunetan, hilabete horren 2a eta 3a, hain zuzen, Kandelario eta San Blas Egunak dira, hurrenez hurren. Kandelario Egunaren argitasuna goratzeko jaieguna da, beraz negu gordinaren amaiera heldu da, momentu egokia Karnabalak ospatuten hasteko; baita be, hu-

rrengo egunetik hasita, Hartzari be kobazulotik kanpora urtetako unea helduten jako. Zeruan, tartean, zera ikusi geinke: Hartz Handiaren konstelazioa, ipar poloko ardatzaren ingurura desplazatzen. Momentu hori martian helduko da, beste fenomeno astronomiko honegaz batera: udabarriko ekinizioa.

### Santa Lutziri eskeinitako ermitak edo baseleizak

"Eguberri" euskal izen zaharra da; baliteke neguko solstizioan egiten diran jaiakaz lotuta egotea; Arratian, ostera, erlijino kristinauan oinarritutako berba hau erabilten da "Matibete Eguna", Jesukristoren jaiotzearen eguna dala adierazoteko. Biak, abenduaren 25eko, hau da, Gabon-Pazko jaiegunagaz erlazionatuta dagoz. Neguko solstizioaren hurrengo egunean argia eta eguzkia be barriak dira; aurreko sasoiaren, ordea, nagusi izaten da iluntasuna. Paganoen artean, neguko solstizioaren argia gurtzen zan, eta "Lutzl" edo "Bertha/Perahta" (germanieraz, "argia") izeneko personajeak sortu ebezan kultura germaniarreko herrialdeek. Eleizeak kristautu egin eban argi hori Erdi Aroan, eta Santa Lutz, jatorri italiarra eukan martiria

izan zan gurtua. XVI. mendearen amaieran, Europako Mendebaldean, Gregorio XIII Aita Santuak sortutako "egutegi gregoriano" edo gergoriar-egutegi barriaren aldaketakaz, Santa Lutziren Eguna abenduaren 13ra pasau zan. Euskal Herrian, Santa Lutziren kultua zabal-zabal agertzen da; eta kristautze prozesuaren lehen momentuetatik, gainera. Hona dakarguz, adibide modura: Gipuzkoan, Urretxuko eta Zumarragako jaia eta merkadueguna; Araban, Laudioko Santa Lutziren antxinako santutegia; eta Bizkaian, Aita Barandiaranek Ondarroan andra batzuen ahotik jasotako izaera erlijiosoan dauan koplak herriko hau:

"Zeu zera  
Santa Lutzia,  
Euskeraz,  
Argia".

Arratian be badagoz Santa Lutziri eskeinitako baseleizak, konkretuki bi: bata, Igorreko Elgetzu auzoan; bestea, Zeanuriko Alzusta auzoan. Aitatutako ermita bien ondoan nekropoliak topau dabez arkeologoek, IX-XI. mendeetan datatuak. Beraz, gune honek sano garrantzitsuak izan ziran bertako eta inguruko biztanle kristinauentzat.

### Monumentu megalitikoak

Neguko solstizioaren gurtza antxinakoa da. Historiaurrean, zehatzago esanda, Neolito Aroaren amaieratik eta Brontze Aroaren hastapenetatik hasita dator, hau da, oin dala 5.000 urte gitxi gorabehera. European zehar topau

daikeguzan monumentu megalitiko batzuk horren lekuko dira. Zeinda Ingalaterrako Stonehenge deitutako lekuan aurkituten diran megalitoak edo harri handiak moduan; itxura biribileko egitura osatuten daben erdian harri bakarra dago, altarearen funtzinoa egiten, eta altarearen harria inguratuten harri edo menhir txikiagoak dagoz. Stonehenge-ko menhir txikiago horreek neguko solstizioan eguzkiaren sarrerea eta itargiaren urtekerea -portadako argazkian ikusten da momentu hau- eta udako solstizioan eguzkiaren urtekerea marketako jarri ziran. Beste leku interesgarriak Irlandako Newgrange santutegi megalitiko eta Frantziako Britainia lurraldeko galeria megalitiko erraldoiak dira (ikus 9. orriko argazkia). Iberiar Penintsulan, Malagako probintzian, Antequera inguruan dagozan dolmenak azpimarratzekoak dira, eta euren artean "El Romeral" izeneko sano bitxia dalako. Bertan, neguko solstizioan, eguzkiaren izpiak sartzean diranean, pasillo guztia zeharkatuz, galeria luzearen fondoan dagoan hormea be argituten dabe; antza, fondoko hormearen espazioan orduko denporetako hildakoen errautsak ixten ei ziran. Ikusten danez, sano garrantzitsua zan hildakoak lurperatutako egiten ziran monumentu megalitikoaren sarreak nora egon behar ziran orientatuta: solstizioetan, eguzkiaren posiziora beti. Atzen honek zera esaten deusku: lehenengo zibilizazio haretako biztanleentzat zein inportanteak ziran udako eta neguko solstizioak. Gauza



**ALKIZABAL**

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net



[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)







**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA



bera esan daiteke Euskal Herriko menhir eta trikuharri batzuen kasuetan. Ezaugarri komunak beraz, hango eta hemengo monumentu megalitikoetan: funtzino astronomikoaz gain, lurraldeen mugak edo mugarriak be izan ei ziran, populazioaren zati bat bizimodu egonkorra egiten hasi zalako jada Neolitoan, giza-talde bakotzak bere lur eta ganaduakaz. Megalitoen funtzino astronomikoagaz amaituteko galdera bat: Zergaitik mobiduten ebezan hain harri handi eta astunak, batzuetan 100 tona edo pisu handiagokoak, monumentuak egiteko? Neguko solstizioa jakitea noz izaten zan oso kontu garrantzitsua zalako: neguan, bizitza neketsua eta gogorra izaten zan, jateko gitxi egoalako eta abereentzat be ez egoalako apenas jatekorik. Ondorioz, gosea arazo larria bihurtuten zan. Klima epeletan, neguko solstizioa jaia negua heldu aurretiko atzen ospakizuna izaten zan; horretarako, animalia gehienak sakrifikatuten ebezan, gosez hil baino lehen. Urtean zehar, une bakarra zan okela freskoa eta kantidadean jateko; gainera, urte berean egindako zerbeza edo garagardoa eta ardao be edateko sasoiaren egozan neguko solstizioa jai nagusian, baina hainbeste janari eta edari hartzeako bezperatik hasi behar izaten eben jaten eta edaten.

### Neguko solstizioa kultural (sua, Gabon-arbolea, Olentzaro...)


Neguko solstizioan, udakoan egiten dan moduan, sinbolismo handiko elementu eta kultu arkaiko bat praktikatzan da, Historiarretik datorrena: sua. Sua purifiketako elementu garbitzailea da, eta horixe da, hain zuzen be, bere

esangurarik zabalduena. Suak amaiera emoten deutso sasoi bateri eta hasikerea beste barri bateri. Une egokia beraz, aurreko urtean euki doguzan ezbeharrak, arazoak eta abar errez ixteko, eta errezago egiten jaku sasoi barri eta itxaropentsu bateri pasoa edo bidea emotea. Izan be, neguko solstizioa "urte amaierako suteen" momentua da. Beste elementu bat, zera da: gure etxe eta baserrietan "Gabonzuzi" izeneko pago-egurra sutondoan ipinten da erretan. Arratian, "gabon subil" edo "gabon mukur" esaten jakon Gabon-gauean erretako basotik ekarten zan enborrari; Gabonak pasauta, erre barik geldituten zan egur zatia, kamarara eroaten zan eta hantxe ixten zan etxe guztia bedeinkatu eian. Honek esan gura dau Gabonetako enborraren eragina positiboa dala, etxeo familiaren osasunerako eta kultiboen onerako. Tronkoa erretan danean, orduan be onugarria da argitasuna eta beroa emoten dauzalako. Lehenago, etxeo animalia guztiak be pasau behar ziran esandako enborraren gainetik, purifikazioa lortuteko.

Badago Gabon-gauean beste elementu sinboliko bat be sutondoko enborragaz erlazionatu behar dana: Gabon-arbolea, neguko solstizioa ospatuteko hamabi egun eta gau berezietan argiz beterik apainduta eukiteko. Honek hamabi egunak abenduaren 25ean hasten dira eta urtailaren 6an amaitu; tradizio kristinuan, Gabon-Pazko egunetik Erregen edo Epifania egunera arte; eta Europako beste herri batzuek (zeltak eta Eskandinaviako germaniarrak, besteak beste) zuztar paganoan finkatuta, "Yule" izeneko tradizioa ospatuten eben neguko solstizioaren barruko hama-

bi egunetan, argitasun barriaren jainkoari eta hildakoen arimen aldeko jaiak ospatuz. Atzen puntu honeguz lotuta, ezin dogu ahaztu hamabi egunen erdian, zikloaren eten bat dagoala, Gabon-zaharra ospatuteko, abenduaren 31n, San Silbestre egunean. Lehen, gure arbaso paganoen denporan, sorginen akelarreak eta difuntuen arimakaz batzarrak egiten ei ebezan; beti be, argiaren arbolak arimadunai eta deslari ebizatan espirituai argitasuna emoten eutsen. Ondorio modura, Gabon-arbolak eta etxeo sutondoan ipinitako enborrak etxeari babes emoten deutse, argitasunagaz eta beroagaz, batez be neguko solstizioaren hamabi egunetako zikloan bisitan etorri diran difuntuen espirituai.

Neguko solstizioa beste errito eta mito batzuk honek ziran: Gabon-gauean jaten zan ogiaren bedeinkazioa; eta Gabon-zahar eguna pasauta, hau da, abenduaren 31ko gauaren ostean egiten eban lehen euriaren ura hartu erritualak egiteko. Eta Euskal Herrian, neguko solstizioa jaien artean, Olentzaroren mitoa nabarmendu behar da. Figura hau Nafarroako ipar-mendebaldean eta Gipuzkoako ekialdeko herri batzuetako tradizioan konserbau da. Olentzaro mitikoa Gabon-gauean erretan dan enborragaz be lotuta ei dago. Olentzaro, folklore edo tradizio herrikoia dinoskun moduan, ikazgin edo egurgin bat da. Jatorria baina zaharra dau. Urteak joan urteak etorri aldatuz joan da, Nafarroako eta Gipuzkoako herri batzuetatik beste batzuetara ondo ikusten dana lez. Halanda be, hona hemen ezaguri batzuk: herriatik kanpo egiten dau eguneroko bizimodua; ez da herriko ohiko biztanlea, bere inguru



Galeria megalitiko Bretañan.

naturala basoa dalako. Olentzaroren personajea, bada, mito desbardinaren nahasketea da. Herriko biztanlea ez danak mesfindantzea sortzean dau herriarren artean; beraz, hareek kontuz ibili behar dabe; aurre egiteko onena, gabon-mukurra izetuta euki sutondoan edo argia arbolaren presentzia be inportanteak dira; ezpabere, Olentzaro tximiniatik sartuko da eta txarkeriak egingo ditu. Olentzaro, beste hainbat personaje mitiko bezala, onurgarria zein kaltegarria izan leiteke. Esate baterako, etxe batean janaria, erropa edo bestelako zeozer itxi ezker, berak be ordea emongo edo ekarriko dau. Olentzaro ikazgina edo egurgina, izaera modernoagoa da. Lanbide edo ofizio baten fazeteagaz agertu izanak, hau da, gizarte tradizionalaren arauetatik gertu agertzeak, zera

emoten deutso Olentzaro personajeari: bersino atseginagoa eta onartzeko modukoa. Gabonetako jaietan bere presentzia neguko solstizioaren lehen egunean edo hasikeran gertatzen da, argiaren ziklo barriagaz batera hain zuzen be.

Amaitu daigun, neguko solstizioaren kultuen artean, erlijino kristinaguz lotuta dagozanak aparte itxita, batzuk gaurko egunetara heldu dira (suak, Olentzaro...), beste batzuk kanpotik etorri dira (Gabon-arbolea, eta oraintsuago, Papa Nöel/Santa Klaus) eta beste batzuk, Inkisizinoan enkargau zan guztiz kentzeako.

**\* Oharra:** Zeanuriko Eguzkiola Kultura Alkartearen lolaean, aurtengo Santo Tomas egunean emondako izen bereko berbaldian oinarrituta dago artikulua hau.

Zorionak eta urte barri on!

ARRATIAKO VDALEN MANKOMUNITATEA

Elxalde Kalea, 49 / 48140 IGORRE / Tfnoa. 94 631 17 17  
mankomunitatea.arratia@bizkai.org / www.arratia.eus

## FUTBOLA

**Gabonetako etenaren ostean barriro martxan****Erredakzinoa**

Gabonak dirala eta ligeak etena izan dau eta urtailaren 6an hasiko dira barriro olgetan Arratiako taldeak.

Gizonezkoen Arratia A taldeak puntu bakarra lortu dau atzenengo 2 partiduetan, 1 eta 0 galdu eban Gatika taldearen kontra eta bina bardindu etxean San Pedoren kontra jokaturako atzen jardunaldian. Arratia taularen erdian dago, bederatzigarren, 19 puntugaz. Hurrengo partidua Apurtuarteren kontra jokatu dau etxetik kanpo, hilaren 6an goizeko 11:30ean.

**LemoaHarrobi eta Arratia B**

LemoaHarrobi taldea bigarren postuan dago 27 puntugaz eta Cultural B liderrarengandik 3 puntura. Atzen bi partiduetan 4 puntu lortu ditu. Iberlanda taldeari 0 eta 1eko emoitzeagaz irabazi eutsan eta banako bardinketea lortu eban Zorrontzakoren kontra etxean jokaturako hurrengo partiduan. Hurrengo partidua, hilaren 7an, 16:00etan jokatu dau Basurto B taldearen kontra etxetik kanpo.

Gizonezkoen Arratia B taldeak osteran atzenengo jardunaldi bietan garaipena lortu dau, 1 eta 3

egin eban Plentziaren kontra eta 2 eta 1 Iraultzaren kontra Urbietan. Arratia zazpigarren dago sailkapenean 18 puntugaz. Hurrengo partidua, hilaren 7an, arrastiko 15:45ean jokatu dau Zaldua B taldearen kontra Urbietan.

**Arratia B lidertzan**

Andrazkoen Arratia B taldeak lehen postua eskuratu dau atzen partidua biak irabazi eta gero. 5 eta 2ko emoitzea lortu eban Ezkurdi A taldearen kontra eta 1 eta 3koa Basauriko Kimuak taldearen kontra. Arratia B taldea lidertzan dago 25 puntugaz. Hurrengo partidua, hilaren 7an, arrastiko 18:00etan jokatu dau Orduña taldearen kontra Urbietan.

Andrazkoen Arratia A taldeak hilabeteko etena eta gero Mariño taldearen kontra jokatu dau etxetik kanpo hilaren 6-7ko astegienean. Arratia A bigarren da sailkapenean liderrarengandik puntu bakarrera.

**Lanak Urbietan zelaian**

Igorreko Udalak lan batzuk burutu ditu Urbietan kirol zelaian abenduan zehar. Sareak aldatu dira, perimetroko itxiera aldatu da eta bertako bedarrezko hesia be aldatu da. Aurrekontua 15.587 eurokoa izan da.

## AZKOREA

**Aitzol Atutxa atzera be menperaezin Bizkaiko Aizkora Txapelketan****Alvaro Rabelli**

Errez, sano errez lortu eban Dimakoak hamaikagarren txapela atzen Bizkaiko Aizkora Txapelketan. Urri bigarrean Euskal Herriko Txapelketea be boltsikora eroan ondoren, hori zan dimoztarrari bere nagusigo eztabaidezina argiago agertzeko gelditzen jakona. Txapelketea Bilboko Areatzan jokatu zan, abenduaren 21ean, Santo Tomas azokako talo usainen artean. Atutxak, hasikeratik goseti, lau kana-erdiko, bi 60 ontzako eta beste horrenbeste oinbiko enbor iruntzi zituan 30' 3"-ko denporan. Atutxa guztiz menperaezina izan zan gainontzeko azkolariarentzat, gehien-gehienai enbor baten alde atera eutsan aizkorea jantzan hasi orduko. Emozinoa, egotekotan, enparauko postuetan igarri ahal izan zan. Hortxe ikusi zan ate joka datorren azkolari belaunaldi barria, hurrengo urteetan zeresana emongo dauana. Holan, bigarrean Julen Larrea (21 urte) izan zan 2' 40"-ra, hirugarrena Aritz Irazabal (26 urte) 6' 26"-ra eta laugarrena Hodei Ezpeleta (18 urte) 10' 17"-ra. Xabier Garcia "Utxu" lemoztarrak bosgarren egin eban eta "Utxu"ren herrikidea dan Julen

Mendietak ez eban parte hartu gaixorik egoalako. Azken sailkatuak maila galtzean dau berez, baina Mendietak gaixorik egoan, eta ez eban parte hartu, orduan, atzen postuan gelditu zan Ernesto Ezpeletaren kontra jokatu beharko dau kanporaketa, eta galtzean dau maila galtzeko.

**Atutxa San Mamesen**

Dimoztarraren igazko benetako ilusinoan, abenduaren 16an San Mamesen Athletic eta Errealaren arteko derbian bete zan. Bera izan zan ohorezko sakea egin ebana, benetako ohorea umetan San Mamesen jokatzegaz amesten eban txapeldun handiarentzat. Gogoratu daigun Aitzol Atutxa Athleticzale porrokatua dala, 10 urte zituanetik bazkide dogu. Ikastolako taldean be atezain jokatu eban. Dimoztarrak Athletic-en koloreak enborren txirlorea bezain sakon daroaz.

**Binakako Urrezko Aizkora**

Urtailaren 6an osteran, Gazetan (Elorrio), Aitzol Atutxak Jon Alberdi "Txikia" gaz batera Zaldua eta Irazuren kontra Binakako Urrezko Aizkorako lehenengo kanporaketea jokatu dau.

## PELOTEA

**Gabonetako III. Txapelketako finalak Diman****Erredakzinoa**

Abenduaren 22 eta 29an jokaturako finalerdien ostean hilaren 5ean jokatu dira Dimako Gabonetako III. Pelota Txapelketako finalak. Egun horretan One Wall erakustaldi mistoa be egingo da eta munduko txapeldunak diran Patri Espinar eta Amaia Ariztegi eta Munduko Txapelketan parte hartu eben Egoitz Amantegi eta Eñaut Esnaolak jokatu dabe.

Finalak hasi aurretik umeen partidua jokatu dira 16:30etik aurrera, 18:00etan hasiko dira finalak. Kimu mailan, Dimako Aimar Aldazabal eta Larrabetzuko Aritz Morales, Dimako Haimar Egaña eta Zeanuriko Igor Egileorren kontra neurtuko dira. Kadeteetan, Dimako Xabier Rekalde eta Orozkoko Aimar Amondo, Lemoako Ibon Kantero eta Zeanuriko Maren Emaldiren kontra neurtuko dira. Nagusietan osteran, Dimako Ekhi Ziarrusta eta Algortako Inhar Ugartek, Dimako Kimetz Zapiko eta Markinako Txaber Zabalaeren kontra jokatu dabe.

Finalean gainera, frontoia berotutako kanoiak ipiniko ditue eta zer jan eta zer edan be egongo da, pintxo eta edariakaz barra bat ipiniko dabe-eta antolakuntzakoak.

Argazkia: Oriol Fernández Martí.

# 2018

## Zorionak eta urte barri on!

“Begi bizian, begi luzean, begirada sakonean, begirada osoan begituten beti”. Gontzal Mendibil

**begitu**

## MENDIA

# Alex Txikon Everestera abiatu da barrero

Alex Txikon mendizalea Himalaiara abiatu da barrero, neguan eta oxigeno artifizial barik munduko mendirik altuena, Everest mendia (8.884 m.), igoten saiatzeko.

### Erredakzioa

Igaz ahalegina egin eta gero, abenduaren 24an hasitako espedizioa zezeilaren amaieran amaitutea espero dau lemoaztarrak.

Biajeari ekin aurretik espedizioaren nondik norakoak azaldu ebazan Txikonek. Kolaboratzaile talde txikia izango dau lagun oingoan, eta, besteak beste, Alí Sadpara izango dau alboan, 2016an Nanga Parbat (8.125

m.) mendia neguan eta oxigeno artifizial barik beragaz igon eban mendizale pakistandarra.

Gaineratu ebanez, igazko esperimentian oinarrituz, aurten "arriskuak murrizten" eta "alpinismo kontrolatua" egiten saiatuko da; izan be, sasoi honetan gitxieneko tenperaturak zero azpitik 60 graduak izan ahal dira, eta haizeak orduko 150 kilometroko abiadura hartu leike. Mendizale lemoaztarrak nabarmendu ebanez, "ahalegina egingo dogu, igaz moduan bederatzigun egun segiduan lan egin behar ez izateko; indarrak gora heltzean garenerako gordetzen saiatuko gara".

Mendizaleak urtailaren 2an heldu ziran oinarritzko kanpalekura, eta bertako klimara egokitzeari ekin deutsie.

Espedizio honetan Eneko Garamendi lemoaztarrak be Txikonegaz dago, Garamendik behe kanpalekuraino lagunduko deutsa eta gero han geratuko da bertoko lanetan laguntzen.



Txikon, Everestera joan aurretik, emon eban prentsurrekoan. Argazkia: @AlexTxikon.

## PELOTEA

# Enaitz Arandia, Zeberrioko pelotari gaztea

### Erredakzioa

Orozkoko eskolan jokatu arren, gaztea Zeberion bizi da. Zortzi urte ebazanean hasi zan jokatzeko pelotan. Oindino gehiago, pelotea odoletan daroala esan daiteke, haren aitita, Jesus, zaletasunez pelotaria zalako.

Enaitz Arandia gaztearen esku ete dago Zeberrioko pelotearen etorkizuna? Izan be, hamabost urte baino ez dituan pelotari honek hainbat txapel jantzi ditu azken aldian, besteak beste: Bizkaiko Bikoteentzako Cup Txapelketea, maiatzean jokatu zana; bagilean Lizarrako bikote txapelketea; eta lortutako atzenen artean nabarmentzekoa da Bizkaiko El Corte Ingles Txapelketea.

Txapelketa hori Galder Solatxi Orozkokoagaz batera jokatu eban Kadete mailan. Orozkon bertan jokatu zan partidua Zeanuriko taldearen kontra eta 22-21 nagusitu ziran. Nahiko parean ibili ziran, baina markagailuan 15-21 ibili ostean, partiduari buelta emotea lortu eban Orozkoko taldeak.

Arandiak badauka atzen lorpen bat aurrekoek gainera, abenduaren 22an Bizkaiko Trinkete txapel-dun izan zan eta.

Gazteak, atzelaria izan arren, Bengoetxea dauka pelotari gustukoena, batez be, haren estiloa gustetan jakolako.



Enaitz Arandia ezkerrean, Galder Solatxigaz.

## HERRI KIROLAK

# Irati Astondoa: "Herri kirolak egiten amaitzea aukera naturala izan da"

### Erredakzioa

Irati Astondoa zeanuriztarra sano gazte hasi zan kiroletan trebatzen, "eskolan pelotan jokatzeko neban eta lehenengo andrazkoa izan nintzan Zeanuriko pelota eskolan. Institutuan futbolera jokatzeko neban eta Arratiko Zekorak taldeagaz be errugbian ibilita nago. Segan eta trontzan 15 urte ingurugaz hasi nintzan. Etxean materiala nebanez, eta nogaz ikasi, herri kirola praktiketeari ekin neutsan". Ordutik, hainbat plaza eta txapelketetan ibili da Astondoa.

Jokatutako atzen txapelketea Donostiako Trinitate plazan izan eban Astondoak abenduaren 21ean, Urrezko Aizkorako Kopako andrazkoen finala hain zuzen be. Zeanuriko azkolariak hirugarren egin eban, 10 minutu eta 41 segundu behar izan zituan lan guztiak burutzeko. Alatzne Etxaburuak irabazi eban txapela.



Irati Astondoa.

Aurten oster, Urrezko Aizkorako urtailaren 6an hasiko da eta Zeanurikoa Nerea Sorondoren kontra neurtuko da lehenengo saio honetan. Bigarren neurtuko da, urtailaren 18an izango dau Irune Izquierren kontra. Finala martiaren 4an jokatuko da Azpeitin.

### Ez ahaztuteko proba bi

Astondoak herri kiroletako bere ibilbidean proba bi gogoratzen ditu modu berezian. Batetik Joakin Garmendia segalariaren kontra neurtu zanekoa 22 urteagaz, "Oin dala 40 urte gertatu zan moduan gizonezko bat eta andrazko bat

aurrez aurre ipini ginan. Galdu egin neban 35 kiloko aldeagaz. Halanda be jente asko batu zan eta giro sano polita egoan". Bestetik, Astondoa eta Alatzne Etxaburuak izan ziran andrazko bik alkarren kontra jokatzeko lehenengo apustuko protagonistak. Desafio ha sega eta azkoreagaz jokatu zan.

### Europa

Europan be segan ibilita dago herri kirolaria, "bost bider joan naz Europako Txapelketara. Euskal Herriko Selekzioagaz parte hartzean dogu. Ez dogu gauza handirik egiteko aukerarik, euren estiloak ez daukalako zerikusirik hemengoagaz. Hemen ez lez, han arintasuna eta txukun ebagitea baloratzen da. Halanda be, normalean sailkapeneko erdikaldean amaitzen dot".

Astondoak kezka bat plazaratu gura izan dau, "nire ustez, Arratian gogoratu behar dogu nondik gatzan eta ze garrantzia izan dauan herri kirolak. Kirol hau lagundu behar da eta ez bakarrik futbolera eta pelotea". Astondoak konbidatu gura ditu neskato eta mutikok herri kiroletan jardutera "gura dauan edonor guregana etorri daitela, gure etxeko ateak zabalik dagoz eta".

**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es

**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

## KANPAINEA

## Lasarte Aretoko bazkide egiteko kanpaina

## Erredakzioa

"Gabonetan kultura oparitu" lelopean Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoko bazkide txartela 5

euro merkeago egin edo barriztu daiteke urtailaren 5era arte.

Txartelagaz urteko ikuskizun guztietan %25eko deskontua izaten da, eta zuzeneko ikuskizun bat eta lau pelikula debalde dira. Ikastaroak be %15eko deskontua daukie txartela erakutsita. Gainera, Euskal Antzoki Sareako antzoki guztietan, deskontuak egiten ditue Lasarte Aretoko bazkide txartelagaz. Txartela egiteko edo informazioa jasoteko Igorreko Kultur Etxera hurbildu behar da.

**GABONETAN KULTUREA OPARITU!!**

ANTZOKI URRUTIA LUJANBIO

30€ → 25€

- Ikuskizun guztietan %25eko deskontua
- Urtean Zuzeneko ikuskizun bat doan
- Urtean 4 film doan
- EUSKAL ANTZOKIEN SAREAKo antzoki guztietan deskontuak

Lasarte Aretoko lagun txartela - IV. Gabonetako kanpaina berezia  
Abenduaren 15etik urtarrilaren 5era arte

## BERBALDIA

## Iñaki Perurenaren "Harria. Maitasun istorioa" ikusteko aukerea Areatzan hilaren 4an

## Erredakzioa

Kontakizun eta erakustaldi hau urtailaren 4an, eguena, 19:00etan egongo da ikusgai Areatzako udaletxeko Aretu Nagusian.

Iñaki Perurena harriagaz dator oingoan be, ez ohiko moduan ostera. Harriagaz izan dauan istorioa modu berezian azalduko dau ordu bete inguru irauten dauan emonaldi poetikoan. Emonaldiaz batera erakustaldia be egingo dau.

Harria metafora, adibide eta hausnarketa bihurtuten dau Perurenak AKKBk nagusientzat antolatatu dauan emonaldian.



**Kontakizuna eta erakustaldia Iñaki Perurenaren eskutik.**

## DISKOA

## Houston Pub taldearen Zure ondo tabernan diskoa kalean

Houston Pub taldeak, *Zure ondo tabernan diskoa* aurkeztu eban Igorren abenduaren 22an.

## Erredakzioa

Horren aurretik baina, Dimako Herriko Tabernan emon eben kontzertua eta gero etorri zan Igorreko Lasarte Aretokan emondakoa.

Diskoan bederatzia bersino eta kanta original bat entzuteko aukerea dago. Atzen hau da diskoari izena emoten deusana; *Zure ondo tabernan*, eta taldekideai

eta jenteari be gehien gustetan jakon kantea dala dinotso BEGITURI David Ibarra "Houston"ek. "Ondo taberna ez da existitzen baina istorio bat sortzeako zan".

Abeslari dimoztarrak gehien entzuten eta gustukoak daukazan taldeen bersinoak jo gura zituan, "Ingalaterran eta Estadu Batuetan 60.ko hamarkadan egiten zan musika, Rolling Stones, Bob

Dylan eta Beatles" berbarako.

Taldearen asmoa "pub eta tabernatan kontzertuak emotea da, ondo pasatzea... 10 kontzertu emon genduzan diskoa atera baino lehen". Hiru kantaz osatutako maketea egitea pentsau eben "Asier Ercillaren Arantzazuko estudioan gengozanean ikusi genduan kantak ondo egozala. Gero Durangoko Rock Izar Records diskoetxeak diskoa egiteko aukerea eskeini ginduan eta egin be, egin genduan".

Lau arratiarrek osatuten dabe taldea. "Iñaki Akesolo eta biok izan ginan proiektuaren sortzaileak, gero Josu Etxebarria zeanuriztara gehitu zan". Atzen partaide Lemoako Ander Varela da "kontzertuetarako ikusi dogu-eta baterijolea behar dogula".

"CDak salgai dagoz betiko dandatan eta kontzertuetan" dino. Gainera, Youtuberako bideo bat egin dabe eta laster ikusi ahal izango da.



David Ibarra "Houston", Josu Etxebarria eta Iñaki Akesolo.

## IKASTAROAK

## Ikastaroak Igorreko Kultur Etxean

## Erredakzioa

Igorreko Kultur Etxeak, urtailetik martira arte antolatzen dituan

ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dago hilaren 4ra arte. Umeentzako zirko ikastaroan, talde bat martitzenetan egongo da eta beste bat eguenetan 17:00etatik 18:30era. Gazteen zat ostera martitzenetan izango da ikastaroa 18:30etik 20:00etara; Ariketa hipopresiboak martitzenetan 17:00etan eta 18:00etan izango dira; Yoga egin gura dabena, astelehen eta eguztinetan

18:30etik 20:00etara eta martitzen eta eguenetan 11:15etik 12:45era eta 18:15etik 19:45era eukiko dabe aukerea; Irakurketa tailerra, astelehen bat izango da hilean 17:00etatik 18:30era; Jantza afrikarrak, hiru zapatu hilean 10:30etik 13:30era eta Txikung astelehenetan 19:15etik 20:45era. Izena Kultur Etxean emon behar da eta txartelagaz be ordaindu daiteke.

**Abel Lapatza Iza**

Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima

946 317 252  
608 287 249

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

**Olaetxe**

Graduazinoak  
- Ikusmen terapia  
- Ikusmen gibusua  
- Begiko tentsioa  
- Lentillen adaptazioa  
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**begitu**

anomia ulkide ezberria

**J.A. IZQUIERDO**

PINTURA LANAK

MOKETA - SINTASOLA - PAPEREA

Elexalde, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 64 62 - 608 664 018

**izkaifisios**

IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA

Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 35 08  
igorre@izkaifisios.com

ANDRA MARI KLINIKEA

Fontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
galdakao@izkaifisios.com

## KONTZERTUAK

### Sinmas eta La Reverso taldeak Kiñun

Illart Gumuzio

Sinmas eta La Reverso taldeen esku egongo da Kiñu Gazte-  
txeko aurtengo lehen emonal-  
dia. Hitzordua, urtailaren 12an,  
21:00etan izango da eta sarrerea  
dohan izango da.

Sinmas 2003an Bilbon sortu-  
tako hardcore taldea da eta Iñaki  
Goiri billaroztarra da taldeko abes-  
laria. Goiriz gain, Julen Martinez,  
gitarra; Erlantz Guilarte, bajua eta  
Alain Diez, bateriak, osotzen daben  
taldeak, lau disko ditu bere dis-  
kografian: *Sinmas* (2004), *Fieles*  
(2006), *4 clavos* (2008) eta Igo-  
rren aurkeztuko daben *Desesperación*  
(2017). Eurakaz joko dauan La  
Reverso taldeak post pop estiloko  
doinuak ekarriko ditu Gasteiztik.



Horrezaz gainera, urtailaren 27an  
Kaotiko, The Gulty Brigade eta Chit  
Chat Sex Band taldeak Kiñun eskei-  
niko daben kontzerturako sarrerak  
zazpi euroan dagoz salgai Axular He-  
rriko Tabeman, Kukuma tabeman,  
Gau Lora akeitegian eta Txaparro  
jatetxean. Antolatzaileak, Glaukoma-  
ren kontzertuko sarrerak saldu diran  
azkartasuna ikusita, atzen ordurako  
ez ixtea gomendatzen dabe.

## ZINEKLUBA

### El brazo de la serpiente filma Igorren

Illart Gumuzio

Hiruhilabete honetako Igorreko  
Zineklubak urtailaren 11n eukiko  
dau hasikerea, 20:00etan, *El bra-  
zo de la serpiente* filmagaz.

2015ean Ciro Guerraren gida-  
ritzapean egindako film koloniar  
horrek xaman amazoniar baten eta  
bi esploratzaile mendebaldarren



arteko istorio epikoa kontatzen  
dau: lehen hartu-emona, alkartzea,  
hurreratzea, traizinoa, eta atzenik,  
bizitzaz haragoko laguntasuna.

Zineklubeko hurrengo zitak  
zezeilaren 1ekoa eta martiaren  
1ekoa izango dira, *Me and Earl  
and the dying girl* (*Yo, el y Raquel*)  
eta *Bigamist* (*El bigamo*) filmen  
emonaldiagaz hurrenez hurren.

## LEHIAKETEAK

### Zu bai Zu 2 Talentu Lehiaketea martxan dago

2016an egin zan txapelketa arrakastatsu hau  
aldaketakaz dator aurtengoan.

**ZU BAI ZU 2 TALENTU LEHIAKETA**

**TALENTU BILA ARI GARA BERRIRO ERE!!**  
Erakutsi zure abilezia, gaitasuna, trebezia!!!  
Parte hartu talentu lehiaketa zoro honetan!!

Izena emateko epea:  
2017ko abenduaren 12tik  
2018ko urtarrilaren 31ra

Izena emateko:  
- Igorreko Kultur Etxean  
- Email bidez: zubaizu@igorre.net  
- Telefonoz: 676 24 77 84

Informazio gehiago  
Igorreko Kultur Etxean

**2.500€ SARITAN!!**

IGORREKO UDALA

#### Erredakzioa

Aurrekoan ez moduan, ez da be-  
harrezkoa Arratikoa izatea, baina

Arratiako onenaren saria irabaz-  
teko erdiak gitxienez Arratiakoak  
izan beharko dabe. Ez dau adin  
edo parte hartzaile kopuruaren

inguruko mugarik, ez eta, prin-  
tzipioz, ikuskizunaren azpiegi-  
turari jagokonez. Halanda be,  
antolatzaileak eskubidea izango  
dau ikuskizunaren bat lehiaketatik  
kanpo ixteko, segurtasun, edo az-  
piegitura baldintzak gehiegizkoak  
dirala eretxi ezker.

Bakarlariak eta taldeak parte  
hartu ahal dabe eta ikuskizuna  
egiteko edozein diziplina erabili  
ahal izango dabe. Zu bai Zu Ta-  
lentu Lehiaketan parte hartu gura  
izatekotan, izena emon behar da  
Igorreko Kultur Etxean, email bi-  
dez: zubaizu@igorre.net-en; edo  
telefonoz 676 247 784 zenba-  
kian. Izena emateko epea urtaila-  
ren 31ra arte izango da.

Aurten, lanen gehieneko irau-  
pena 4 minutukoa izango da.

2.500 euro bananduko da sa-  
rietan ondorengo kategoria hon-  
neetan: sari orokorrean 1.500€;  
gazteentzako sarian 500€; Arra-  
tiako onenarentzat 300€; eta,  
azkenez, 200€ umeen kategoria-  
rako.

Ikuskizun bakotzak sari bakarra  
jaso ahal izango dau. Sarietarako,  
lehiakideak ebatzi ahal izango  
dabe saria dirutan edo espeziatan  
gura daben (afari bat, materiala,  
etab) baina dirutan kobrau ezker,  
legez jagokon atxikipena izango  
dau eta hori dala eta diru gitxiago  
jasoko dabe saridunek. Bigarren  
kasuan, Igorreko Udalagaz adostu  
beharko da prozedura.

Lehiakideen irudiak, lehiaketeak  
iraun bitartean, hartu ahal izango  
dira edozein gala-ekitalditarako.  
Halanda be, irudi horreek le-  
hiaketearen eta Lasarte Aretoaren  
promoziorako bakarrik erabiliko  
dira. Lehiaketan parte hartzeak  
hori guztia onartzea dakar, eta  
adinez txikiok diranen kasuan,  
komenigarria da gogoratzea gura-  
soak edo tutoreak baimena sinatu  
beharko dabela.

## DUNBA

### Bertsoak

#### Inazio Zubizarreta ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Ene gabonaren xarmak  
elkartzen gara gu danak  
irribarrerik politena du  
gure etxean amamak.

Ardia da umeginen  
aita sukaldean finen  
iaz gehiago mahai inguruan  
afaltzeko egon ginen.

Gaztainak jaten jo ta su  
hor ibiltzen ohi zara zu  
urte zaharra joan da eta  
berria hemen daukazu.

Artxoa ta karakola  
Kasa eta Kokakola  
gure aititek erosiko du  
igual barriro patrola.

Basotik ahuntza bajatu  
ez zaitetz orain kexatu  
sorginik ez da agertu eta  
zirenak dira usatu.

Ai dagoenean bon-bon  
eta ez dagoenean egon  
urte zaharrari agur esanda,  
danori urte berri on!!



## AGENDEA

URTAILAK 3  
BEDIA

Urtailaren 5era arte, 10:30etik 13:30era, ludotekea eta liburutegia zabalik.

## IGORRE

Urtailatik martira arteko Kultur Etxeko ikastaroetan izena emoteke epea zabalik urtailaren 4ra arte. Urmeentzako zirko ikastaroa, talde bat martitzen eta beste bat eguenetan 17:00etatik 18:30era, gazteentzat martitzen eta 18:30etik 20:00etara; Ariketa hipopresiboak martitzen eta 17:00etan eta 18:00etan; Yoga, astelehen eta eguaztenetan 18:30etik 20:00etara eta martitzen eta eguenetan 11:15etik 12:45era eta 18:15etik 19:45era; Irakurketa tailerra, astelehen bat hilean 17:00etatik 18:30era; Jantza afrikarrak, hiru zapatu hilean 10:30etik 13:30era eta Txi-Kung astelehenetan 19:15etik 20:45era.

Urtailaren 5era arte, Wilhelm von Humboldt, *Euskaldunen herrien barrena 1801-2001* erakusketea.

17:00etatik 19:00etara, urtailaren 22ra arte, martiaren 3an sagardotegira egingo dan urtekerara joateko izen emotea. Gazteria Zerbitzuko bulegoan, astelehen, eguazten eta barikuetan. Edo 688 898 765 telefonoan. 18tik 30era artekoentzat.

Hilaren 5era arte Lasarte Aretoko bazkide txartela 5 euro merkeago egin edo barritzuta daiteke.

Urtailaren 31ra arte Zu bai Zu 2 Talentu Lehiaketan izena emon daiteke zubaizu@igorre.net emaillean, 676 247 784 telefonoan edo Kultur Etxean.

## LEMOA

Hilaren 5era arte, 11:00etatik 15:00etara, zabalduko da liburutegia.

19:30ean, Pintxo Lehiaketa eta Hiri Galduek-en kontzertu akustikoa Karabie Gaztetxean.

Hilaren 4ra arte, Kontrainfo fanzinoteka erakusketea Karabie Gaztetxean.

URTAILAK 4  
AREATZA

19:00etan, AKKBk antolatuta, Iñaki



## Alizia lurrealde miresgarrian Igorren

Urtailaren 7an, domekea, antzezlan honetaz gozatzeko aukerea egongo da saio bitan, 17:00etan eta 19:00etan. Glu Glu-ren antzerkirako moldaketa honek ordu bete inguru irauten dau eta Lasarte aretoan egongo da ikusgai 5 euroren truke, aretoko bazkideak 3,75 euro.

Lewis Carrollen *Alizia lurrealde miresgarrian* ipuinaren haur antzerkirako moldaketa aurkeztuko dau Glu Gluk. Ipuin klasikotik abiatuta gaur egungo 3-9 urte bitarteko umeai zuzenduta, ikastearen edertasunaz eta beharraz arituko da antzezlanak.

Kantu, jantza eta antzerkiagaz Alizia neska gazteak hainbat personaje xeberre eta dibertigarri ezetuko ditu. Hareei esker onartuko dau, eskolan erakusten deutsien moduan, matematika, ingurugiroa, elikadura eta hizkuntzak ikasteak onura handiak emoten dituala. Eta, gainera, dibertigarria be bada.

Aliziak ikuskizunean zehar ikasi dauan guztia praktikan ipinteko aukerea eukiko dau amaieran eta jabetuko da ikastea lurrealde hori bezain miresgarria dala!

Perurenaren kontakizun eta erakustaldia "Harria. Maitasun istorioa". Udaletxeko Aretu Nagusian.

## ARTEA

10:00etan, Gabonetako Umeen Parkera urtekerea.

## IGORRE

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Motxoganean tailerrak aterpean.

## LEMOA

11:00etatik 14:00etara, ludotekea zabalik.

URTAILAK 5  
AREATZA

17:30ean, Erregeen Kabalgatea. Karpotik hasita.

## BEDIA

18:30ean, Erregeen Kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.

## DIMA

18:00etan, Gabonetako III. Pelota Txapelketako finalak eta One Wall erakustaldia. Amaia Ariztegi eta Patri Espinar munduko txapeldunak egongo dira bertan.

19:30ean, Etxean gure doguzek antolatutako lehenengo barikuko kontzertuzinoa plazan.

## IGORRE

18:30ean, Erregeentako Kabalgatea Mandoia kaletik.

## LEMOA

Iluntzean "Zerbait is coming..." Karabie Gaztetxean.

## URTAILAK 6

## IGORRE

19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua Lasarte Aretuan.

## LEMOA

17:30ean, Parrokiako plazan, Errege Magoak. Lemoako Parrokiak antolatuta.

## URTAILAK 7

## LEMOA

10:00etan, urtekerea bizikletan Arlonagusia

kaleko saskibaloia kantxatik. Lemoa Txirindulari Elkartek antolatuta.

## URTAILAK 8

## BEDIA

Urtailaren 21ean eta 26, 27 eta 28ko asteburuan Alto Campoora eskietan joateko urtekeretara izena emoteke epea zabalik hilaren 12ra arte. Izena 16:30etik 19:30era liburutegian emon behar da. Gangurenek antolatua udalaren laguntzeagaz.

## URTAILAK 10

## DIMA

18:00etan, Dimako Gurasoen Elkartek antolatuta, ume eta familien irakurle kluba Mireia Delgadoen eskutik liburutegian.

## LEMOA

19:00etan, udaletxean Jai Batzordearen lehenengo batzarra.

## URTAILAK 11

## IGORRE

20:00etan, zinekluba, *El brazo de la serpiente* Lasarte Aretuan.

## URTAILAK 12

## IGORRE

19:30ean, *Arratiarrakaz berbetan* berbaldi zikloan EAJ-PNVko Izaskun Bilbao Europarlamentaria Kultur Etxean.

21:00etan, Sinmas eta La Reverso taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.

## URTAILAK 13

## IGORRE

22:00etan, zinea *Perfectos desconocidos* Lasarte Aretuan.

## URTAILAK 14

## IGORRE

17:00etan, zinea *Coco*; 19:30ean, *Perfectos desconocidos* Lasarte Aretuan.

## LEMOA

10:00etan, urtekerea bizikletan Arlonagusia kaleko saskibaloia kantxatik. Lemoa Txirindulari Elkartek antolatuta.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## EGURRA SALTZEAN DA

Pago egurra saltzean da sua egiteko. 45€/tona. Gura izan ezker neurri zatitutako aukerea dago. Informazio gehiago 688 602 516 telefonoan.

## DANERIK

## LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632 159 270 telefonoan.

## LAN ESKEINTZA

Estetizista bat behar da Igorreko estetika zentro baten, lanaldi erdirako. Gixienez urte biko esperientzia eskatzen da. Interesdunak bialdu curriculum eta argazkia haizenatur@gmail.com helbidera.

## TRUKEA

Arratian (Areatza) bizi dan neska alemaniar/danimarkarrak beragaz

ingelesez edo alemanieraz praktiketako aukerea eskeintzen dau, gaztelania praktiketako aukerearen truke. Interesdunak 634 445 924 (Sophie) telefonora deitu.

## GARAJE PARTZELA ALOKAIRUAN

Zeanurin, Ibarretan garaje partzela bat alokatzen da. Interesdunak deitu 94 673 92 96 telefonoan.

## ALOKAIRUA

Usansolon fisioterapia zentroa alokatzen da. Behar dan guztiagaz horniduta, funtzionamentuan eta prezio interesgarrian. Telefonoa 690 107 156.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Alizia lurrealde miresgarrian* antzezlanerako.

Oihane Barrenetxea (Dima)  
David Ibarra (Dima)



**2** Kiñu Gaztetxeak emondako bina sarrera *Kaotiko taldearen kontzerturako*.

Karmele Aurrekoetxea (Igorre)  
Dani Etxezarraga (Artea)



**3** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15

urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Jarri. Letra mutua. 2.- Otzara. Birritan, nahi, asmo. 3.- Umeen berbetan, mosua. Galdu aditzaren erroa. 4.- Hatxari dautsan goroldio antzekoa. Bokala. 5.- Letra bat. Multzo. 6.- Gizakiok atzekaldean daukagu. 7.- Oinaze. Errez. 8.- Erbioa. Zati. 9.- Nitrogenoa. Ardazle.

### GOITIK BEHERA

1.- Abizen bat. Adore. 2.- Umeen berbetan, ogia. Birritan, gurgur. 3.- Luze-labur. Bat erromatar. 4.- Neoia. Txirritxirriaren kantuaren onomatopeia. Emea ez dana. 5.- Erdiko bokala. Itandu. 6.- Galioa. Tela. 7.- Agurra. Buztan.

E	L	U	R	I	N	6	V	X	O	X	I	Z	I	M	3
L	V	A	T	R	E	8	I	S	S	O	V	A	Z	S	7
I	H	E	N	J	M	Z	V	X	I	R	R	A	S	I	1
V	I	D	E	P	E	9	T	O	R	I	J	A	O	S	5
O	L	I	L	P	I	5	R	I	O	S	I	T	I	X	2
V	A	V	K	V	A	4	L	E	S	I	I	X	O	S	4
L	V	A	V	G	V	3	N	N	V	X	X	X	X	X	6
O	C	A	R	E	Z	2	I	R	R	A	S	I	T	I	1
H	I	P	I	N	I	1	N	O	S	I	T	I	X	2	
1	2	3	4	5	6	7	X	X	X	X	X	X	X	X	6

Topau ur gainean urperatu barik egon leitekezan zazpi gauza.

B	E	L	G	A	R	R	A	U	N
I	T	E	L	A	M	I	G	A	L
G	U	R	I	L	R	A	R	K	U
O	S	K	O	R	A	R	E	O	M
T	X	A	O	L	U	K	A	R	I
A	E	T	K	A	R	T	O	I	A
S	A	L	K	E	R	A	B	U	N
L	A	O	K	I	T	S	A	L	P
E	Z	K	I	L	E	O	G	I	R
A	U	S	A	T	X	A	D	U	A
H	E	O	R	T	A	I	B	O	L
I	S	E	R	A	B	R	I	K	A
L	A	O	G	U	Z	R	A	P	E
A	K	R	E	P	A	O	S	E	T
D	E	M	E	Z	I	K	O	R	A

**A  
K  
I  
M  
I  
K  
O**

K  
a  
i  
l  
o  
R  
e  
n



umean moda  
**sew**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**AKEITEGIA**  
**GATY & LORA**  
**IGORRE**

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIB ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnos.: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
**ZUZENBIDE**  
ABOKATUAK;  
ZUZ. ZIBILA  
KONTSUMO ZUZ.  
ADMINISTRATIO ZUZ.  
INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA;  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis  
Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**ZEKUTZE**  
JATEETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA** AUTOESKOLA  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: urizulu@euskalnet.net



# Areatzako Bainuetxea



[www.hotelbalnearioareatza.com](http://www.hotelbalnearioareatza.com)

Oparia topetan Olentzero egunerako?

## Urte honetan, relax-a Areatzan

Masajeak, zirkuitu termalak,  
bonu gastronomikoak, hidromasaje bikotxak,  
estalkiak, estetikea, fisioterapia...

28€-tik aurrera

[info@hotelbalnearioareatza.com](mailto:info@hotelbalnearioareatza.com) - 946572705